



Pil-pilean

TRUKINGOIA Soraluzeko hilabetekaria
2021eko maiatza · 375 alea

25 urte zuekin



BULLYING-A
BIZKARRA
EMATEN
DIZUTENEAN



PIL-PILEAN 375

2021ko maiatza

Azaleko argazkiaren egilea:

Fernan Oregi.

Aurkibidea

- | | | |
|----|--|---|
| 4 | Elkarrizketa Margarita Ibargoien
Bake epailea | IRITZIA |
| 6 | Begira Zubigintzarako deia | 3 Neuretik Maider Gabilondo <i>Birusak ez du mugarik</i> |
| 8 | Zer berri Aktualitateko albisteak | 16 Gutunak Eneka Ezenarro
<i>Txertaketa prozesuaz</i> |
| 14 | Argazki bidez Ate irekiak musika eskolan | 16 Hausnarketa Etxebizitzak |
| 16 | Plazan bazan Umeendako jolasak | 17 Komiki tira |
| 18 | Erreportajea Bullying | 17 Puntua Iñaki Amuategi <i>Askatasuna libertatea</i> |
| 26 | Kirola Iñaki Recio 2. mailan | |
| 27 | Kultura Askabeitti pieza berria eta Kulturaldiko egitaraua | |
| 30 | Sakonean Mohamed Kaddoura eta Zahaie Abdulrasek palestinarrek | |
| 32 | 25 Urte zurekin Maiatzeko efemerideak | |
| 34 | Zerbitzuak Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak... | |



Pil-pilean herri komunikabidea

TOKIKOM

Argitaratzailea
Pil-pilean Euskaltzaleen Topagunea
Errabal kalea 15-1, PK 27
20590 Soraluze

Erredakzioa
Ubane Madera
ubane@pilpilean.eus
Egoitz Unamuno
egoitz@pilpilean.eus
605 706 086

Publizitatea
publizitatea@pilpilean.eus

Zuzentzailea
Miren Gallastegi

Diseinua
Goiena
Oier Larreategi (moldaketak)

Maketazioa
Oier Larreategi

Inprimategia:
Gertu Koop.

Banaketa:
Pil-pilean Ekoizpena

Lege Gordailua:
SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Babesleak

GOKI
erreformak

 **SORALUCE**



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



**SORALUZEKO
UDALA**

Birusak ez du mugarik



MAIDER GABILONDO

CCOVID-19 izurritea gizateria osoaren arazo komuna da. Herrialde batzuen eta besteen arteko aldea gaixotasunaren aurkako borrokan eskura ditzaketen baliabide-kopurua da. Egiten ari garen akatsik handiena da borroka hori gure mugetara mugatzea. Erantzuna globala izan behar da. Izan ere, herrialde batzuk osasun baliabide gutxiago dituzte halako larrialdi bati aurre egiteko. Ondorioz, COVID-19aren aurkako estrategia nagusia txertaketa da, txertoa eskuratzeko, ekoizteko eta mundu osoan banatzeko oztopoak gaindituz.

Urtebete pasatxoan, zientzialari, enpresa, gobernu eta mundu osoko erakundeak mobilizatu egin dira, zeregin pentsaezina lortzeko: COVID-19ren aurkako txertoak garatzea. Probatu, garraiatu eta txertoak era seguruan eta aurrekaririk gabeko denboran banatzen hasi ziren.

Baina egungo erritmoan, ez dago txerto nahikorik eskaria asetzeko. Eta eskaintza oso esku gutxiren esku dago. Zenbait herrialdek behar adina dosi kontratatu dituzte herritarrei txertoa behin baino gehiagotan jartzeko; beste batzuek, berriz, ez dute jaso lehen dosia. Hori mehatxua da guztiontzat. Egoera horretan, birusak eta haren aldaerek edo mutazioek irabazten dute partida.

Birusa gainditzeko, txertoak guztiontzat izan behar dira. Premiazko hiru neurri hartu beharko lirateke: jabetza intelektualaren eskubideak sinplifikatu, eskubide horien titularrek lizentziak borondatez eta proaktiboki emanaz. Gobernuek deuseztatu egin behar dituzte COVID-19aren aurkako txertoen esportazioa eta beharrezko osagai eta hornidurak blokeatzen, murrizten edo geldiarazten dituzten esportazio- eta inportazio-kontrol zuzenak edo zeharkakoak. Azkenik, heldu guztiei txertoa jartzeko behar duten baino 'etorkizuneko dosi' gehiago jasotzeko kontratua egin duten gobernuek dosi-soberakin horren zatirik handiena edo guztia COVAX mekanismoari eman beharko liokete 2021erako, beste herrialde batzuetan berdintasunez banatzeko. COVID-19 pandemiak argi erakutsi digu inor ez dagoela salbu denok salbu egon arte. Ahal den guztia egin behar dugu mundu osoan COVID-19ren aurkako txertoak eskuragai izateko. Zenbat eta lehenago egin, orduan eta normalagoa izango da gure bizitza eta gure seme-alabena.

BIRUSAK EZ DU MUGARIK ETA INDIAKO BIRUSAREN ALDAERA POBREZIA DA

“Behin ezkondu nuen bikote bat astelehen bateko 08:00etan”

MARGARITA IBARGOEN ELGETA BAKE EPAILEA

TESTUA UBANE MADERA

ARGAZKIA: FERNAN OREGI

Justizia-Administrazioaren ordezkaria da Bake Epaillea. Soraluzen, Margarita Ibargoien Elgetak (Soraluze, 1958) bete du kargua 1999tik. Orain, beste lau urterako berrituko du, apirileko osoko bilkuran, udalbatzarrak aho batez onartu zuelako.

Pozik? Bai.

Zergatik Bake Epaille horrenbeste urtean?

Gustatzen zaidalako, libre nagoelako eta Soraluzen bizi naizelako. Lanean bazaude, ia ezinezkoa da. Bestalde, jende asko ezagutzen dut eta horrek asko errazten du lana. Ez da denbora luzez lan egin behar, baina libre egon behar zara. Adibidez, hil hasieran, 09:00etan bikote bat ezkondu nuen, martitzen baten. Lantegi batean bazabiltza, pentsa ezazu...

Zeintzuk dira Bake Epaille baten zereginak?

Gehienbat Erregistro Zibilean jaiotzen, ezkontzen eta hildakoen erregistroak sinatzea, baita nota gehigarriak ere. Adibidez, norbait dibortziazten bada, edo abizenak aldatzen direnean... Horiek Erregistroko nota marjinaletan jasotzen dira eta sinatu egin behar dira.

Baina ezkondu, ezkontzen duzu, ala?

Bufl! Kontatzen hasi naiz eta 1999tik 80 bikote baino gehiago ezkondu ditut. Eta dibortziazatu badira, ondoan ipintzen dut.

Zenbatak jarraitzen dute ezkontuta? Gehienek.

Gainera, ezkontzen ditudanean, konfiantza dutenekin esaten diet: *senar-emazte deklaritzen zaituztet, eta betiko, eh?*

Zereginen artean gustukoena? Denak. Txarrenak kontziliazio aktoak dira. Eztabaida edo desadostasun kasuak dira. Bizilagunenak edo enpresenak. Adostasuna badago ondo, bestela auzitegietara jo behar da. Hori zailagoa da. Gainera, plazentziatarrak denak ezagunak izatean...

Tokatu zaizu halakoren bat? Adibidez? Bai. Ba loreak ureztatzean beheko bizilagunaren arropak bustitzeagatik, adibidez. Edo telefono konpainia bat herritar baten kontra, herritarrak ez duelako faktura ordaindu...

Jendeak badaki udaletxera joan daitekeela

halakoekin? Bai, jendeak asko daki. Enpresak ere etortzen dira batzuetan.

Bake Epaille bazara, Bake Epaille zereginetatik ezin zara sekula libratu? Bai. Behin tokatu zitzaidan nik

ezkontza bat izatea herrian beste bikote bat ezkondu behar nuenean eta alkateak ezkondu zuen hemengo. Baina normalena izaten da ezkontzak zapatueta-eta izatea eta Bake Epaille bazara libre egon behar duzu. Adibidez, beste behin, bikote bat ezkondu nuen astelehen bateko 08:00etan.

Gertatu zaizu anekdotaren bat? Egin ditut ezkontzak *por poderes*. Adibidez, soraluzetar batek Peruko batekin ezkondu nahi du, baina Peruren eta Espainiaren artean akordiorik ez bada, ez dute lagatzen. Hortaz, bata ezkondu behar da han (Peru) bikote ordezkotz batekin eta bestea hemen beste ordezkotz batekin. Eta *in articulo mortis* ere ezkondu dut: norbait hiltzear badago edo hiltzeko arriskua badu, ahalik eta lasterren ezkontzea.

Homosexualak ere ezkondu ditut, neskak zein mutilak. Bestalde, jendeak galdetzen dit zein den hurrengo ezkontza. Nik ezin dut esan. Baina guztiak egoten dira publikatuta Kontzejupean eta jendea hara joaten da begiratzerara. Bestalde, gogoan dut nire lehen sinadura. Kontzejupeko bulego txikian izan zen, lehen liburutegia zegoen lekuan.

Dibortzioak ematen dituzu? Ez. Hor notarioek-eta parte hartzen dute.

Baduzu lanerako egutegirik? Erregistroa zabaltzen da astelehenetan, ostegunetan eta ostiraletan. Egun horietan joaten naiz.

Bake Epailleak asko irabazten du? Herriko biztanle kopuruaren arabera ordaintzen dute, hiruhileko sinboliko bat. Urtean lau aldiz. Ez da deklarazioan sartzen. Orain, postua irten denean, adibidez, aurkezteko asmoa zuten hainbatek atzera egin dute kopuruaren eta baldintzen berri izatean.

Bake Epaille izateaz gain, Caritasen ere bazaude.

Zer giten duzue? Orain urtebete, ia ezer. Itxita dago, pandemiarengatik. Orain Eibarrera bidaltzen ditugu eta han ematen zaie arreta. Hemendik informazioa ematen diegu.



Zubigintzarako deia

ARGAZKIA: FERNAN OREGI.

TESTUA: EGOITZ UNAMUNO.

Joan zen zapatu eguerdian, Gure Eskuk Zubi Nagusia eta Gabolatseko zubia sinbolikoki lotu zituen giza-katea antolatu zuen, erreferendumaren aldeko Hamaika Gara ekimena aurkeztu eta herritarren sinadurak batzeko helburuz. Herritarrei hiru “erronka” proposatu zizkieten "zubigile bezala": “www.hamaikagara.eus webgunean sartu eta erreferendumaren aldeko manifestua sinatzea; inguruko 11 lagunek, gutxienez, manifestua sinatu eta erronkarekin bat egin dezaten saiatzea; eta azkenik, uztailaren 3an, Bilboko Areatzan egingo den mobilizaziora joatea”. Etorkizuna erreferendum bidez erabakitzea da proposatzen dutena.





Elkar Ekin Lanean, bazterkeriatik lanera

Gipuzkoako Foru Aldundiak Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du; bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du xede

Bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonak gizarteratu eta lan munduan txertatzea helburu duen Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategia aurkeztu du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Enplegu Inklusiboa eta Kalitatezkoa sustatu nahi da egitasmo honekin. "Nazioartean eredu gara lan babestuan eta ekonomia sozialean, hirugarren sektore sozialeko enpresei eta kooperatibei esker, hurrenez hurren. Horixe bera lortu behar dugu enplegu inklusiboan. Lan merkatuan sartzeko eta finkatzeko zailtasun gehien duten pertsonen kalitatezko enplegua, enplegu duina, inklusiboa eskaintzeko sistema garatu behar dugu", adierazi du Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusiak.

Tresna nagusia, lana
Horretarako, 16 lan lerro eta 30 neurri zehatzetan banatutako estrategia landu du Foru Aldundiak, Etorkizuna Eraikiz programaren babespean eta Eusko Jaurlaritzaren 2030 Enpleguaren Euskal Estrategiarekin bat eginez. "COVID-19ak eragindako krisialdi sozialari aurre egiteko palanka izango da, batetik, eta

epe ertainera begira, berriz, gizarte desberdintasunei mugak jartzeko tresna partekatua", aurreratu du diputatu nagusiak. Lana izango da tresna nagusia "bizitza duina" bermatzeko, "bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gizarteratzeko" eta "bizitza proiektu bat berdintasunez garatu ahal izateko", dio diputatu nagusiak.

Estrategia zabal eta partekatu honen bitartez, erakundeen, garapen agentzia, enpresa eta eragileekin elkarlanean, datozen hiru urteetan, bazterkeria arriskuan edo egoeran dauden pertsonentzako 3.500 lanpostu berriren sorrera bultzatzea du

helburu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Pandemia aurreko datuen arabera, lurraldean ia 37.000 lagun daude pobrezia larrian eta, gainera, egoera horretan kroniko bihurtzeko arriskua dago. Bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonen gain, prestakuntza baxua

BAZTERKERIA ARRISKUAN EDO EGOERAN DAUDENENTZAKO 3.500 LANPOSTU SORTU NAHI DITUZTE

Elkar Ekinen onuradunak

JOSEPH SUTARGI

"22 urte ditut. Jatorriz, marokoa. Donostian daroatzat hiru urte. Egun, Ategorrietan bizi naiz, harrera etxe baten. Oso egun zailak pasa ditut, kale gorrian. Orain, goizez, tailerrera joaten naiz; arratsaldean, EPARA, ikastera. Roberto da nire monitorea. Hark erakusten digu arotzeria, egurra bola landu... Ofizio bat ikasita irtetea gustatuko litzaidake, lana aurkitu, familiari lagundu...".

CAROLINA KALEXKA

"Edozer gauza egiteko ezgaitua nengoen. Agorafobia sentitzen nuen. Lan barik nengoen. Kalekkan, sentsazio ugari sentitu nuen proiektuarekin lehen harremana izan nuenean. Inoiz halakorik egin barik nengoen: ez entxufe bat aldatu, ez egurra landu... Azken egunean, gertatutakoaz hausnartzen, ohartu nintzen ahaztu nuela noiz desagertu zen agorafobia. Gainera, ume batek bezala disfrutatu nuen; pozarren".



Markel Olano Gipuzkoako diputatu nagusia, Elkar Ekin Lanean estrategia aurkezten.

duutenak, langabezian kroniko bihurtu diren pertsonak, 45 urte baino gehiagorekin langabezian daudenak nahiz biolentzia matxistaren biktimak kontuan izango ditu, bereziki, Elkar Ekin Lanean estrategiak.

Dirulaguntza deialdi berria

Estrategiaren hedapenerako, datozen hiru urte hauetan 36,6 milioi euro bideratzea aurreikusten du Gipuzkoako

Foru Aldundiak. Horietatik, ia 3 milioi euroko dirulaguntza deialdia onartu berri dela aurreratu du diputatu nagusiak. Deialdi garrantzitsu honek igoera nabarmena izango du (%250ekoa); izan ere, 2020ko deialdian 1,2 milioiko zuzkidura izan baitzuen.

Elkar Ekin Lanean 2021-2023 estrategiak hiru alorretan eragingo du, horiei lotutako sei helburu nagusi lortze aldera.

Lehenik, lanean diharduten erakunde eta eragileen sistema trinkotzeko ahalegina egingo du, lankidetzazko gobernantza eredu bat garatuz. Dagoeneko abian da strategiaren zabalkunde gidatuko duen mahai instituzionala eta hurrengo pausoa izango da gizarte eta ekonomia alorreko eragileak batuko dituen mahai osatzea.

Bigarrenik, enplegu inklusiboa eta kalitatekoa zabaltzeko aukerak indartzea izango du helburu Elkar Ekin Lanean Estrategiak. Horretarako, lanpostu berriak eratzeko esfortzuaz gain, inklusioaren ikuspegia landuko duten enpresa berrien sorrera sustatuko da, dagoeneko abian dauden jarduera sendotzeaz gain. Hirugarrenik, bazterkeria egoeran edo arriskuan dauden pertsonak aukera berdintasunez lan munduan txertatzeko aukera izan dezaten eragingo du estrategia honek, Eusko Jaurlaritzarekin eta Lanbiderekin elkarlanean.

Hori egiteko, 16 lan lerro eta 30 neurri konkretu ezarri ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak. Besteak beste, dirulaguntzak, gizarteratze enpresa berrien sorrera, informazio sistema adimenduna, txertatze soziolaboraleko gune berezia eta halako egitasmoak sustatuko dira.

Neurri horien guztien inpaktu gisa, hiru urtean 4.000 lagunengana iristea aurreikusten da, 2.500 lagunengana formakuntza bideratu eta 3.500 lanpostu berrien sorrera bultzatu. Gainera, 2023rako lurraldean hamabost gizarteratze enpresa edukitzea ezarri dute xede.

JUAN ANTONIO EMAUS

"Extremaduran jaio nintzen. Baina Arrasaten hezi naiz. Kale gorrian nintzen eta aukera izan nuenean, Emausen eman nuen izena. Ikastaroa egin nuen, ondoren, lan egiteko aukerarekin, eta hemen nago, lanean. Oso pozik nago. Bizitzeko gogo eman dit honek. Nire lanean gustatzen zaidana da gauzak konpontzea, margotzea, bonbilla bat jartzea..."

VANESA EDE EMAKTIVA

"Une oso gogorak pasa ditut. Inoiz ez dut lortu kontratu batekin lan egitea. Nahiz eta umeak zaintzen aritu naizen, garbiketan praktikak egin ditut... Orain nago Emaktivan. Espero dut positibotasuna lortzea, aukera gehiago izatea bizitzan aurrera egiteko, alabarentzako erreferente izatea, amak lan ondo egiten duela ikus dezala. Eta jendeak nigan sinistu dezala".



Jone Beristain teknikaria merkatarien eta ostalarien artean banatu duen materialarekin.

Plastikoaren erabilera murrizteko

Soraluzen, urtean, plastikozko 554.010 poltsa, 22.005 ur botila handi eta txiki, 15.000 tuper, 6.620 edalontzi eta 2.700 lastotxo kontsumitzen dira

Ostalaritzan eta merkataritzan kontsumitzen den plastikoa kopurua murrizteko kanpaina abiarazi du Udalak.

Batetik, plastikoaren gehiegizko erabilera hori murriztu egin nahi du, bestetik,

erabiltzen diren produktuak jasangarriak izan daitezten lortu nahi du.

Poltsa, tuper... berriak
Horretarako, material biodegradagarriekin egindako

materiala emango die doan ostalariei eta merkatariei, haiek oraingoan ordez erabil ditzaten.

“Poltsak konpostagarriak dira, tupperrak azukre kanaberaz egindakoak eta edalontziak eta lastotxoak arto almidoizkoak. Badaude beste poltsatxo batzuk txikiagoak, gominolendako-eta, paperezkoak, koipea pasatzen lagatzen ez dutenak. Izan ere, ez daude horren plastikozko poltsa konpostagarri txikiak”, esplikatu du Ingurumen teknikari Jone Beristainek.

Ura pitxarrean

Bestalde, plastikozko ur botilen erabilera gutxitzeko, ostalariei proposatu diete ura kristalezko pitxarretan ateratzea, bertan kontsumitzeko den kasuetan.

Kanpaina honen bitartez, plastikoak gutxitzeaz gainera, Udalak erakutsi nahi du merkatuan badaudela plastikoaren biodegradagarri edo konpostagarriak. Udalak 11.500 euroko aurrekontua bideratuko du kanpaina horretara, Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza bitartez.

"Zilarrezko" eta "urrezko" odol emaile soraluzetarrei aitortza

Soraluzeko Odol Emaileen Elkartetik aitortza egin nahi diete 25 eta 50 bider odola eman duten herritarrei: "Osasun egoera dela eta, iaz ezin izan genuen behar bezala ospatu, baina ezin utzi aipatu gabe bere odola 25 eta 50 aldiz eman duten soraluzetarrak: Oihier Arantzeta Oruna, Eneritz Buruntza Tornos, Maite Lete

Irasuegi eta Pablo Murgoitio Ribera (25 aldiz); Gotzon Epelde Ezenarro eta Albeto Bengoa Solozabal (50 aldiz).

Bestalde, herriko hurrengo odol ateratzea uztailaren 23an egingo dute. Gogoan izan bertan egunean hartu behar dela txanda, 08:30etik 13:30era bitartean, honako telefonora deituta: 943 00 78 84.



Odol emaileak maiatzean.



Iker Aldazabal alkatea eta Iñaki Arriola sailburua akordioa sinatzen .

29 etxebizitzaren proiektua aurrera

Astelehenean, maiatzaren 24an sinatu zuten Pascual Churrucaren orubean 29 etxebizitza eraikitzeko akordioa Udalak eta Jaurlaritzak

Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio sailburu Iñaki Arriolak eta Sorluzeko alkate Iker Aldazabalek sinatutako hitzarmenari esker, Eusko Jaurlaritzak 3,5 milioi euroko inbertsioa egingo du Sorluzen alokairu sozialeko 29 etxebizitza eraikitzeko. Udalak emandako 2.600 m²-ko partzelan gauzatuko du proiektua.

Alokairuzko etxebizitzak Alokabidek kudeatuko ditu. Sailburuak jakinarazi zuenez, gaur gaurkoz, Alokabidek 47 etxebizitza kudeatzen ditu Sorluzen, 17 Jaurlaritzarenak berarenak eta bestek 30 Bizigune programaren bitartez eskuratutakoak.

Udalaren esku

Bestalde, etxe berrien behe-barruak Sorluzeko Udalak erabiltzeko izango dira. Horrez

gain, Olaldeko eremua birgaitzeko proiektuaren baitan, hango etxe jabeak realojatzeko, Pascual Churrucako orubean eraikiko diren etxebizitzetako lau Udalaren esku geratuko dira.

2006tik egiteke

Bi ordezkari politikoek azpimarratu zuten astelehenean sinatutako hitzarmenaren garrantzia. "Mugarri inportantea da, azken 15 urteotan Sorluzen egin den halako lehen esku-hartzea izango baita", esan zuen Arriolak.

Iker Aldazabal alkateak gaineratu zuen hitzarmen horrek, "batetik, zaharkituta dagoen gunea bat birgaitzeko aukera" emango duela "eta bestetik, sorluzetarren eskariari bide" emango diola.

Lore lehiaketa abian

Ekainaren 25era arteko epea dago Balkoietako eta Leihotako Lore Lehiaketan izena emateko. Udaletxera bertaratuta edo 943 75 30 43 zenbakira deituta eman daiteke izena. Lehiaketa ekainaren 28tik uztailaren 2ra izango da. Bi sari banatuko dituzte: 150 euro lehenengorendako eta 75 euro bigarrenarendako. Sariak uztailaren 5ean emango dituzte.

Osoko bilkura ezohikoa

Ekainaren 2an, eguaztena, ezohiko osoko bilkura egingo du udalbatzarrak.

Udal ordezkariak aztergai izango dituzte, batetik, apirilko osoko bilkuran mahai gainean laga ziren bi gaiak.

Kasu horretan, Ezozia futbol-zelaiaren erabilerari buruzko Udalaren eta Sorluzeko Futbol Taldearen arteko hitzarmenari buruz erabakiko dute. Eta bestetik, Ertzaintzaren eta Udaltzaingoen arteko lankidetzaren buruz erabakiko dute. Bi kasuetan, gaiak xehetasun handiagoarekin aztertu nahi zituelako egin zuen mahai gainean lagatzeko eskaera EH Bilduk eta Udal Gobernuak onartu egin zuen eskaera. Eguazteneko batzarrean, puntu bi horiekin batera, aztergai izango dute 2022ko lan egutegirako jai-eguna izendatzea eta baita ere, 2020ko kontu orokorra onartzea. 19:00etan hasiko da bilkura.



Bizikleta martxako eta pentsiodunen mugimenduko kideak Plaza Berrian.



Plaza Zaharretik irteten.

Pentsioen aldeko borrokan indartsu

Aste honetan, Gipuzkoa zeharkatu duen bizikleta martxa egin dute pentsio publiko duinak aldarrikatuz; asteburuan, berriz, manifestazioak

Soraluze ere zeharkatu zuen pentsio publiko duinen aldeko Gipuzkoako bizikleta martxak. Plaza Berrian egin zuen geldialdia, hantxe zain zituzten-eta Soraluzeko Pentsiodunen Mugimenduko kideak.

Irrintziak, txalaparta, bertsoak eta aureskua lagun.

Espainiako zein Euskadiko gobernuei begira jarri eta inolako "murrizketarik" onartuko ez dutela azpimarratu zuten, "pentsio publiko eta

duinak" nahi dituztela "denontzako", zehazki, 1080 eurokoak, eta, oro har, zerbitzu publikoen defentsa egin zuten.

"Gizarte guztiaren gaia"

Hiru urte daramatzate pentsiodunen mugimenduek pentsio publiko duinen alde borrokan eta bide beretik tinko segitzeko asmoa partekatu zuten: "Pentsiodunen eskubideen alde borrokan jarraituko dugu, herriz herri jendea eta indarrak bilduz. Pentsioen gaia ez da gaurko pentsiodunen arazoa bakarrik, gizarte guztiarena baizik".

Koronabirusaren eragina neurtzen duen semaforoak hartu du berderako bidea

Nabarmen hobetu da herriko egoera koronabirusaren eraginari dagokionez. Azken 10 egunotan, ez dute positiborik atzeman eta horri esker, Soraluzeko intzidentzia-tasa metatua 100,65era jaitsi da azken aste honetan. "Orain pare bat aste agerraldi txiki bat izan genuen herrian eta harrezkero 50 urteko soraluzetar batek

Txagorritxun ospitaleratuta segitzen du, SARS CoV-2 koronabirusarengatik, baina ez dute ZIUn ospitaleratu. Orain, igartzen da jaitsiera. Orain, lan handia dugu, askok azken hilabeteotan egin izan ezin dutena egin nahi dutelako, baina normalago gabiltza. Beraz, ondo", esan dute Soraluzeko anbulatoriotik.

55-59 urtekoen txertatzea

Osterantzean, txertatze kanpaina aurrera doa, gorabeherekin bada ere. Orain, 55-59 urte bitartekoak ari dira txertatzen, soraluzetarren kasuan, Eibarko Astelena frontoian. Baina Astra Zenecaren lehen dosia hartu zutenei bigarren dosia zein etxetakoa ipiniko dieten gaiarekin sortu den polemikaren ondorioz, txertatze prozesuan bi aste inguruko atzerapena izango dela aurreikusten dute adituek.



Mikel Leunda eta Asier Basurto teknikariak aurkezpenean.

Migrazioen eragina

Faktore demografikoa da ikerketak aipatzen duen lehena: “Soraluzeak biztanleriaren laurdena galdu du 20 urtean, jaiotza-tasa baxua delako eta herritik jendeak alde egin duelako”; gainera, herritarren ia herena (%28a) kanpotik etorritakoa da (estatutik edo atzerritik), eta, herritar multzo hori ez da euskalduna.

Beste hainbat faktore ere aipatzen ditu, esaterako, herritar euskaldun askoren lehen hizkuntza gaztelania dela.

Herri mailako ekimen bateratua

Adituen ustez, herri mailako ekimen bateratua da euskarak bizi duen gainbeherari buelta emateko bidea: errelato bat, diskurtso bat, ikuspegi bat... euskaltzaleak, elkarteak eta erakundeak norabide berean lanean jarriko dituenak. Horrekin batera, ia-euskaldunekin euskaraz egiteko ohitura indartzea, haur eta gazteen jardunari lehentasuna ematea eta euskara komunitatearen erdigunean kokatzea ere beharrezkotzat jo dituzte.

Norabide berean jarduteko beharra

Asier Basurto Klusterreko teknikariak Soraluzen euskarak bizi duen gainbeheraren arrazoiak eta etorkizunerako gakoak aurkeztu ditu.

Neurketek erakusten dutenez, 2001etik 2016ra bitartean euskararen erabilerak 18 puntu egin du behera Soraluzen (%49,6tik %31,2ra) eta hain zuzen, beheranzko joera horren arrazoiak ikertu ditu

Soziolinguistika Klusterrak, Soraluzeko Udalak hala eskatuta. Joan zen eguenean, ikerketaren emaitzak aurkeztu zituen Asier Basurto klusterreko teknikariak udaletxeko batzar aretoan.

Baso Biziak Elkarteak jardunaldiak antolatu ditu ekainaren 3rako

Urtebeteko ibilbidea osatzera doan honetan, Baso Biziak Elkarteak jardunaldiak antolatu ditu ekainaren 3an, arratsaldeko 18:30ean hasita, Antzokian. Saioak hiru atal nagusi izango ditu. Lehenengoan, elkarteak ordezkariak elkarteak aurkeztu eta etorkizunerako asmoen berri emango dute.

Bigarrenean, Arturo Elosegiren EHUko ekologia katedradunak eukaliptoak ingurumenean duen eraginaren berri emango du. Eta azkenik, Jon Hidalgo Lurguia Fundazioko teknikariak fundazioa aurkeztuko du.

Elkarteak 100 bazkide pasatxo ditu eta horiez gain, interesa duten herritar denak gonbidatu nahi dituzte jardunaldira.



Martxoan landaketa.

Ate irekiak Musika Eskolan

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI. TESTUA: DOMENTX UZIN.

Ate irekiak! Belarri irekiak! Musika hortik sartzen da eta! Begi irekiak, instrumentuak ondo ondo ikusteko... gertutik. Aho irekiak; hori zer da? Eta nola jotzen da? Sudur irekiek tamalez oraingoan, esku ez hain irekien gel usaina hartu dute. Ez Gitarra, Biolin, Txelo eta Kontrabaxuaren egur eta erretxiña usaina. Ezta Klarinete edo saxofoiaren grasa usain goxoa. Flauta eta abarren metala usaintzeko... Oso gertu egon behar da ordea! Pianoaren barrunbeetako egur-metal-hauts usaina. Perkusioen partxe eta metalena.

Pena izan da oraingoan instrumentuak jo ezin izatea. Baina tira, behintzat entzun eta ikusi egin ahal izan dituzte. Hor ez da ezer txarrik kontagiatzen. Edo bai. Baina aurten debekuak debeku, ederki sentitu dut musikak beste ate batzuk irekitzen jarraitzen duela: poza, ilusioa, irudimena, buruko ate irekiak! Eta baita bihotzekoak ere!






Pareak bai!

Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzez. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.



Sudokua



Ezagutzen al duzu udaberria esateko beste modurik? Beharbada zure herrian ez, baina BEDATSE ere esaten zaio, edo BEDATS. Osa itzazu sudokua lau zuriak BEDATS hitza osatzen duten letra kontuan hartuta (B, E, D, A, T eta S). Gogoratu, sudokua zuzena izan dadin, letra bakoitzak behin agertu behar duela zutabe, lerro eta area bakoitzeko.

IKUSI-MAKUSI

Horra gure aitona-amonon aitona-amonen beren haurtzaroen landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi irudietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?



Labirintoa

Etxe-txolarreak beheko teilatupean egin nahi du habia. Lagun iezaiozu haraino heltzen. Horretarako, habia egiteko baliatuko dituen elementuak jarraitu beharko dituzu, orden honetan: belarra (1), hosto lehorra (2), lastoa (3) eta luma (4). Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalen.



Aurkitu duzu bidea? Hala bada, laukiz lauki pasa dituzun hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu:



Handitik txikira

Zazpi hosto hauek denak indigaztainondoarenak dira. Ordena itzazu handitik txikira, handienari 1 zenbakia emanez eta txikienari 7.



Itzala

Margotu erlea eta arrosa eta aurkitu itzal zuzena.



GUTUNAK

Txertaketa prozesuaz

ENEKA EZENARRO

Arrisku handiko pertsonendako txertaketa prozesuak negargarria izaten diharduela salatzen nator. Izan ere, lehentasun faltsu bat iragarri eta txertatzeko hitzordua izendatu ostean, bezperan, jakinarazi zidaten nire hitzordua ezeztatuta gelditzen zela eta, besterik gabe, data berririk ipini barik laga ninduten, eurak deituko zidatela aginduta.

Asteak joan eta asteak etorri ez didate inolako informaziorik eman eta uste dut hori gureganako arduragabekeria dela. Nola ulertu behar dut arrisku handiko izendatu eta bapatean izendapen horretatik kanpo gelditzea, inolako azalpenik eman gabe?

Hori dela eta, idatzi honen bitartez nire haserrea eta

inpotentzia adierazi nahi dut eta ezagutarazi nahi dut txertaketa prozesuaren kudeaketa orokorrean izan diren eta izaten ari diren gabeziak.

Etorkizunean, nahi nuke, artaldeko ardien moduan barik pertsona gisa tratatzea.

GUTUNAK: Karaktereak, gehienez: 1.000 (espazioak barne).

Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena eta abizena. Gutuna helarazteko bideak: aldizkaria@pilpilean.eus

KOMIKI TIRA



HAUSNARKETA

Etxebizitza sozialak

Udalak eta Jaurlearitzak hitzarmena sinatu dute Pascual Churruca lantegia bota eta 29 etxebizitza sozial egiteko.



JUAN LUIS JAUREGI

Nik duda daukat etxebizitza gehiago behar ote den herrian, baina behar bada ba aurrera. Nik neuk uste dut Plazentzian prioritatea etxe zaharrak konpontzeak eta berritzeak daukala. Lehenengo etxe zaharrak bota eta gero egin berriak.



MARKEL BARRUTIA

Etxebizitza berri guztiak alokairu sozialera bideratzea ez zait ondo iruditzen. Jende askok nahi izaten du etxe berria erostea eta herrian etxe berririk ez dagoenez, kanpora jotzen dute etxe bila. Nik inguruan baditut halako kasuak.



MARIA LUCIA SALINAS

Niri oso ondo iruditzen zait alokairu sozialerako etxebizitzak egitea, batez ere, gazteek alokairurako etxeak behar dituztelako, independizatzeko, eta herrian alokairura bideratutako etxe gutxi dago.



LOREA ELIZBURU

Nik uste dut etxeen kupoa beteta dagoela herrian eta dirua beste gauza batzuetara bideratu beharko litzatekeela: umeendako gune estali bat, aparkalekuak, gazteek egoteko lekuak... Jendea kanpora joaten da bizitzera herrian zerbitzuak falta direlako.

PUNTUA



IÑAKI AMUATEGI

Askatasuna, libertatea!

Garai ilunak, beltzak eta latzak bizi ditugu egun. Munduari begiratua ematea besterik ez dago: Gazako eta herri palestinarraren aurkako etengabeko sarraskia, Kolonbian bizimodu hobea aldarrikatzen duten herritarren hilketak, mugetako etorkinen hondamendia, despidoak eta lan baldintzen prekarizazioa, faxismoaren pizkundea... Eta horri guztiari pandemiak eragindako kalte eta albo-kalte guztiak gehitzen badizkiogu, tarte gutxi itxaropenerako!

Baina zergatik kezkatu, boto ziztrin batzuen truke Madrilgo Serrano kalean erosketak egin eta kaña bat hartzeko “libre” baldin bazara? Lasai, erlaxatu eta disfrutatu!

Edukiontzian etorri eta rastroan jarritako objektua balitz bezala salgai jarri dute libertatea. Erraz eta erruz saldu dute produktua.

Martxa honetan “Storage wars” (Nork ematen du gehiago?) estiloko telesaioko trastelekuren baten agertuko da enkantera. Baina aurkikuntzak duen baloreaz galdetzeko erosleak adituarengana jotzen duenean, a zer ezustekoa konturatzen denean preziorik ez duela eta ezin duela salgai jarri!

Askatasuna, besteak beste, inoren mendeko ez denaren egoera eta zapalkuntzarik eza baita.

...libreeeee izateko haiz jaioa!



Bullyinga desaktibatzeke bideak lantzen

Maiatzaren 2an, bullyingaren kontrako nazioarteko eguna izan zen. Euskal Autonomia Erkidegoko Hezkuntza Saileko ikuskaritzak jakinarazi zuen 100 bullying kasu atzeman zituztela 2019-2020an, aurreko ikasturtean baino lau kasu gehiago. Sare sozialak baliatuta egindako bullying kasuak, berriz, %25 areagotu dira.

Testua: **Ubane Madera.**
Argazkiak: **Ubane Madera eta Fernan Oregi.**

Datu ofizialak dira sarreran jakinarazitako horiek. Etxera, Soraluze etorrira, zein da egoera? Bada, Institutuan bullying kasu baten lanketa bukatzen ari dira. Plaentxi Herri Eskolan, berriz, gaur egun ez dute protokolorik aktibatuta, baina eduki izan dute. Oraindik ere, gertatzen dira bullying kasuak gure artean.

Ziberbullyingaren hazkunde kezagarria

Bullyinga, definizioz, eskola-jazarpena da. Plaentxi Herri Eskolako zuzendari Pili de la Presak azaldu duen moduan, "ikasleen artean, denbora jakin baten gertatzen den tratu txar psikologikoa, edota fisikoa".

Sarri, jazarpen horrek eskola ez den bestelako eremuetan ere jarraipena izaten du. Hala azpimarratu du Soraluze BHI Institutuko ikasketa-buru den Amaia Ezenarrok: "Halako arazoa dagoenean, eta Soraluze moduko herri txiki batean gehiago, egoera ez da bukatzen eskola bukatzean. Normalean, tratu txar horrek kalean segitu egiten du, modu batera edo bestera".

Bestalde, urte batzuetatik hona, gero eta kezka handiagoa eragiten duen beste bullying mota bat hedatzen ari da bizkor eta indartsu: ziberbullyinga. "Bullying mota berri bat da, bitarteko digitalen bitartez burutzen dena. Eta jazarpen egoera eguneko ordu gutzietara luzatzea ahalbidetzen duena", esplikatu du Plaentxi Herri Eskolako adituak. Hark gaineratu du eskola-jazarpenak dituen



ezaugarriak gehi beste gogorrago batzuk dituela ziberbullyingak (ezaugarri guztiak ondorengo orriko taulan).

Gainera, ziberbullyinga berriagoa da, ondorioz, hari aurre egiteko tresnak oraindik ez daude oso garatuta eta hedatuta. Kezka eragiten du: "Kontrolatzea zailagoa denez, kezka handia eragiten digu. Ziber-jazarpenerako protokoloa sortu berri dute eta horri begira jarriko gara", esplikatu du De la Presak.

"Ez dago profilik"

Adituek azpimarratzen duten beste puntuetako bat da edozein pertsonak jasan dezakeela jazarpena. Baita eragin ere. "Ez dago biktima-erasotzaile profilik. Edozein izan daiteke biktima zein erasotzaile. Akaso erasotzailearen profilari buruz irudikapen bat dugu eta ez da horrela. Hark ere baditu bere arazoak eta beste modu batera funtzionatzen ikasi behar du. Bestalde, bullying kasu baten ikusleak ere badira arazoaren parte. Isiltasunaren legearen menpe daude. Zerbait kontatzen duena txibatoa da eta beste asko isilik egoten dira hurrengo euren tokatuko zaien beldurrez. Hori apurtzea zaila da", esan du Institutuko ikasketa-buruak.

Jakinaraztea, ezinbesteko

Gaur gaurkoz, bullying egoeraren bat gertatzen bada, hari aurre egiteko ikastetxeetan dituzten tresnak protokoloak dira. Baina haiek aktibatzeke, behar hori dagoela jakin egin behar dute eskoletan:

Hiru ume beste bat seinalatzen.

Bullyngia eta ziber-bullyngia

Bullyngia eskola-jazarpena da. Plaentxi Herri Eskolako zuzendari Pili de la Presak honela esplikatu du: "Bullyngia eskola jazarpena da. Bullyngia ikasleen artean, denbora jakin batean gertatzen den tratu txar psikologiko edota fisikoa da. Lau ezaugarri ditu:

1. Botere desoreka: biktimaren eta erasotzailearen artean ematen dena, helduen begiradatik urrun eta babesik gabe.
2. Intenzionalitatea: kaltea eragiteko nahia egotea.
3. Errepikapena: behin eta berriz gertatzea eta denboran irautea.
4. Pertsonalizazioa: erasoak pertsona zehatzei egitea.

Ziber-jazarpena

Ziber-bullyngia, berriz, bitarteko digitalekin ematen den jazarpena da. Bullyngaren ezaugarriez gain, beste batzuk ere badituena:

- Azkartasuna eta erosotasuna eta anonimata.
- Momenturo eta edozein lekutan egonda burutzeko aukera.
- Esposizio maila handia, ikuslego asko.
- Askotariko baliabideak.

"Bullyng susmoen aurrean, nahiz eta ez egon seguru, etorri eta komunikatu. Kezken berri eman. Modu bakarra da esku hartzeko. Dugun informazioa partziala da, ezin dugu dena ikusi. Izan berri dugun kasuan, tratu txar horiek jaso zituen biktimaren familiak komunikatu zigun. Lehenagotik egoeraren berri ere bagenekien, familiak esanda. Interbentzioa egon zen eta Institutuan egoera kontrolpean genuen, baina badirudi kalean egoerak segitu egin zuela eta hilabetetara beste episodio bat izan zen; haren berri jaso genuen eta protokoloa aktibatu genuen. Orain, kasua bideratuta dago. Baina behaketarekin segituko dugu. Ez dugu guardia jaisten", azaldu du Ezenarrok.

Ikusle direnen garrantzia

Komunikazio hori edozeinek

egin behar duela gogorarazi du, berriz, Pili de la Presak: "Eskola jazarpena saihesteko pertsonaia garrantzitsuak ikusleak dira. Horien artean edozein egon daiteke: ikasle bat, irakasle bat, guraso bat, herritar bat... Jazarpen kasuren bat ikusiz gero, ezin da beste aldera begiratu. Zerbait egin behar da. Ikuslerik ez balego, ez litzateke bullyngik egongo, ez bailitzateke publikorik egongo. Ziberjazarpenak, berriz, publiko asko dauka. Seguru aski, hori izango da ziberjazarpenaren arazorik handiena. Gainera, erabateko anonimotasuna eskaintzen du (...) Ez badugu ezikusiarena egiten, emaitzak igarriko dira. Baina denok jarri behar gara leku berera begira, ez bakarrik eskola, baita etxeok ere. Lan bateratua egin behar dugu eta helduen aldetik sentsibilitate handia eta inor ez kulpabilizatzeko jarrera izan behar da, errespetu osoz. Edozein modutan, norbaitek esaten badigu umeari kalean zerbait egin diotela, horri heldu egin behar dio. Baita ustezko ziberjazarpen kasuetan ere. Kalean balizko bullyng kasu bat identifikatzen bada, esan eskolan. Edo beste nonbait, baina jakinarazi. Esku hartu egin behar da, bai ala bai".

Gazteak, elkarbizitza eta gatazka

Bullyngia ez da berria; hala esan du Institutuko ikasketa-buru Ezenarrok: "Bullyngia beti existitu da eta gaur egun askoz gehiago dakigu arazo horri buruz. Horrek esku-hartzea bideratzen laguntzen digu. Badakigu prebentzio lana oso garrantzitsua dela eta Erkidegoko ikastetxeetan horretan saiatzen ari gara, elkarbizitza positiboa lortzeko bidea egiten.

Institutuan nerabeekin egiten dugu lana. Nerabetasuna krisi garaia da. Etapa definitzen duten hiru hitz: aldaketa, trantsizioa eta gaitasunen garapena. Aldaketa asko ematen dira ume izatetik heldu izateko trantsizio honetan eta nerabearentzako zaila da aldaketa guztiak integratzea, zailtasunak eta arazoak sortu daitezke garapen horretan.

Gatazka, elkarbizitzaren parte da eta horrela ulertu behar dugu. Gatazkak ondo bideratzen ikatea da klabea.

Institutuan, nerabeen artean azken urteetan ikusi duguna zera da: Lehen, adin kritikoa 14-15 urtekoa bazen (DBH 3), orain aurreratu egin dela 12-13 urtetara (DBH 1-2), eta berriz, 3. mailara iristen direnerako garapen salto bat eman dute eta lasaiago daude. Lehen ez genituen ikusten hain sarri etorri berriekin ikusten ditugun jarrerak (autoafirmatzeko beharraren ondorioz ematen diren jarrerak, autoritatearen aurkako jarrerak edota diziplina arazoak). Inguruko ikastetxeetan gauza bera gertatzen ari da, ez da Soraluzen bakarrik ematen den gauza bat.

Mugarik eza kezka iturri

Ezenarrok gaineratu du ardura eragiten diola horrek: "Gazte gehienak normaltasunez (arazorik gabe) egokitzen joaten dira, elkarbizitzari eta garapen pertsonalari dagokionez. Momentu puntualak salbu, ez dute izaten arazorik. Badago kopuru txiki bat egokitzapen arazoak dituen."

Kopuru txiki hori, azken 5 urteetan handitzen joan dela ikusi dugu eta horrek kezkatzen gaitu. Mugak non dauden bereizteko zailtasunak dituzte horiek, normaltzat hartzen dituzte normalak ez diren gauzak eta honek eskolako eguneroko bizitza konplikatzeko du, diziplina arazoak sortzen dira, klaseak normaltasunez ematea oztopatuz."

Frustrazioa toleratzeko ezintasuna

Izan ere, mugarik ez izate horrek kaltea eragiten dio pertsonaren garapenari: "Garapen orekatua izateko pertsonak afektu asko eta mugak behar ditu. Umeei ez badizkiegu mugak ipintzen, lehenago edo beranduago arazoren bat izango dugu."

Mugarik ez bazaie ezartzen, luzera ez dute frustrazioa toleratuko eta errealitatea, bizitza, frustrazioz beteta dago askotan. Guk ez badugu

**"JAZARPENA
GERTATZEN DELA USTE
BADA, ESKU HARTU
BEHAR DA, EZIN DA
EZIKUSIARENA EGIN"**

**"IKUSTEN DUGU
BATZUENDAKO EZ
DAGOELA MUGARIK ETA
HORREK KEZKATU
EGITEN GAITU"**

Zein kasutan abiarazten da protokoloa?

Plaentxi Eskolako Pili de la Presa ikasketa-buruak esplikatu du zelan funtzionatzen duen bullyingari aurre egiteko protokoloak: "Izan daiteke guraso batek kezka duelako, irakasle batek ikusi duelako... Prozesu bat abiatzen da, dokumentu zehatzak daude eta denborak mugatuta. Ikuskaritzara bidali behar da. Behaketak egin. Bullyinga izateko ezaugarriak betetzen diren ala ez aztertzen da. Ikuskariak erabakitzen badu baietz, beste planifikazio potente bat egin behar da. Bullyingik ez dagoela erabakitzen bada, lanean jarraitu behar da eta esku-hartze bat egin. Izan ere, puntu horretara iristeko ikusi da gauzak ez zaudela oso ondo. Beraz, hori ere landu egin behar da. Denbora eta energia handia eskatzen du".

Baina, protokoloa aktibatu baino lehen, egon litezkeen arazoak detektatzeko eta ikasleen arteko elkarbizitza egokia sustatzeko tresna ugari erabiltzen dituzte bi ikastetxeetan. Plaentxi Herri Eskola, adibidez, aitzindari izan da jazarpenari aurre egiteko lanketan. Duela 8 urte hasi ziren, orain jazarpenari aurre egiteko ikastetxe guztietan erabilzen den Bizikasiren sortzaile Aitor Albizu adituarekin. Bizikasiren arabera, hiru esku-hartze maila daude sistematizatuta: prebentiboa (familiekin, ikasleekin, irakasleekin...formazioa, lanketa...), bigarren mailakoa (susmoa dagoen lehen momentutik egiten dena) eta hirugarren mailakoa (protokoloa martxan jartzea).

BAT taldea

Bullying kasuen edo bullying izan daitekeen susmoa duten kasuen jarraipen osoa egiten du BAT taldeak, zer egin behar den erabakitzen du. Honakoek osatzen dute: zuzendaritzako kide batek edo bik, kontsultoreak eta tutore batek. Ikastetxe guztietan dago BAT taldea. Eskolan gertatzen diren gauza guztiak, nahiz eta txikiak izan, jaso eta hauen jarraipena egiten du. Horrez gain, bestelako neurri asko ere badituzte sistematizatuta: tutoretzak, irakasleen formazioa, getetan ordezkariak, umendako postontziak...

Guk ez badugu mugarik ipintzen, ikasgai hori ez da ematen eta ikasgai hori etxean hasten da. Esango nuke askok hori argi dutela, baina denek ez. Oso zaila egiten zait pentsatzea bakarrik ikastetxean ematen dela halako jokabidea eta etxean ez. Maitasuna eman behar da, hori oso inportantea da nortasunaren garapenerako, autoestimurako... Baina garrantzitsua da, baita ere, mugak jarri eta mugen tolerantzia horretan heziketa ematea. Horrela, modu orekatuan heziko dira, ezetza onartuko dute eta onartuko dute beti ezingo dutela eurek nahi dutena egin. Gauza bat da nahia eta bestea beharra, ez dira gauza bera. Ez da erraza, noski. Gomendioa da maitasun asko, baina mugak ere bai, mesedez", dio Amaia Ezenarrok, Soraluze BHI Institutuko ikasketa-buruak.

Ezin da inor baztertu

Azken batean, elkarrekin bizi gara eta bullyinga desagerrarazteko tresnarik eraginkorrena elkarbizitza positiboa lantzea da, bullying-era ailegatzea saihestea. Hala azpimarratu dute herriko bi ikastetxeetako ordezkariak. "Txikitatik erakutsi behar diegu elkarrekiko errespetuaren, harreman osasuntsuen, elkar eta auto-zaintzaren... garrantzia. Elkarrekin bizitzera bultzatu behar ditugu eta horretarako gu eredu izatea garrantzitsua da. Harreman onak erakutsi eta irakatsi behar dizkiegu gero beraiek praktikara eramateko", azpimarratu du Pili de la Presak, Plaentxi Herri Eskolako zuzendariak.

"Eskola jazarpena jasan nuen bi urtez"

"Hamalau urte nituen eta Ikastolako aldia amaituta, nire adineko lagun gehienek ez bezala, batxilergoa Bergarako institutu batean egitea erabaki nuen. Inozentziaz eta ilusioz beteta ekin nion bizitzako etapa berriari, baina laster okertu zitzaizkidan gauzak.

Gogoratzen dut ikaskide bat hasi zela nire korrika egiteko moduagatik barrez eta komentario iraingarriak egiten: 'arraro' egiten nuela korrika, 'marikita' ematen nuela... Lagunarte berria zen eta ni sekula antzeko egoerarik bizi barik nengoen. Ez nuen ulertzen gertatzen ari zena eta ez nekien nola babestu.



Egoitz Unamuno.

Berandu gabe, jazarpenak gora egin zuen eta konturatu orduko iranez eta bazterkeriaz betetako zurrumbilo baten erdian aurkitu nuen neure burua: homosexuala 'marikita' nintzela, ez hurbiltzeko.

Horrela pasatu nituen bi urte, eta hirugarrenean, beste herri bateko institutura aldatzeko aukera izan nuenean, erabaki nuen ezetz, ez nuela 'ihes' egingo eta, kosta ala kosta, hasi nuen lekuan amaituko nuela batxilergoa. Suertez, ikasturte berrian herriko lagun handi bat etorri zen institutura eta bere babesean, lortu nuen zurrumbilo horretatik ateratzea.

Eta oso gogorra izan zen. Min handia egin zidaten. Gerora, denbora asko behar izan dut egoera hark eragin zizkidan beldur, konplexu eta abarrak gainditzeko edo arintzeko. Eskerrak bizitza, beti aurrera egiteko aukera eman didazulako".

"Harreman osasuntsuak sustatu behar dira"

PILI DE LA PRESA PLAENTXI HERRI ESKOLAKO ZUZENDARIA

Plaentxi Herri Eskolako ikasketa buruak esku-hartzearen garrantzia azpimarratu du, umeen arteko edozein gatazkatan.

Guraso batek uste badu bere umeari bullyinga egiten diotela?

Eskolan jakinaraztea garrantzitsua da, haurrek etxean, kalean eta eskolan pasatzen baitute denbora gehien eta beraz, bullying kasu batek denean eragingo du. Eskolan protokoloa eta egoera hauei aurre egiteko tresna eta baliabideak dauzkagu eta martxan jartzen ditugu egoera baten susmoa dagoen



bakoitzean. Hala ere, egoerak eman aurretik egiten diren lanketen garrantzia ere azpimarratu nahiko nuke, etxean zein eskolan elkarren arteko harreman osasuntsuak sustatu behar ditugu.

Gerta liteke "umeen arteko gauzak" bullying egoeraren batekin nahastea?

"Umeen arteko gauzak" esaldiak egoerari garrantzia kentzen diola uste dut, bullying kasu batera iristen ez diren haurren gatazkek zein momentuko jazarpenek ere min handia eragin dezakete eta hauen aurrean ere esku-hartzea beharrezkotzat jotzen dut.

Gerta liteke bullying kasu batengatik esatea "umeen arteko gauzak" direla?

Bullying hitza asko eta kasu batzuetan errazegi esan den gizarte honetan, askotan honi garrantzia kentzeko joera bat egon da. Beraz, hitza tentuz erabili behar dela uste dut. Baina egoerak gertatzen direnean, ezin diegu daukaten garrantzia kendu.

"Beti dago hobetzeko aukera"

AMAIA EZENARRO SORALUZE BHI INSTITUTUKO IKASKETA-BURUA

Protokoloaz gain, bullyingari aurre egiteko prebentzioak duen garrantzia azpimarratu du Ezenarrok.

Zelan landu prebentzioa?

Helburua da elkarbizitza positiboa errealitate izatea eta elkarren arteko harremanak beste modu batean enfokatzeko. Horretarako, hezkuntzan parte hartzen dugun agente guztiak inplikatu behar gara: familiak, irakasleak, ikasleak... Pausoak hor eman behar dira.

Zelan?

Familiekin komunikazio kanalak irekita mantentzen. Orain, maiatzean, LHtik 1. DBHra etorriko direnen gurasoekin



bilera izango dugu eta bilera horretan honetaz hitz egingo dugu, hau guztia azalduko diegu. Bizikasi, protokoloak... **Ikasleekin?** Saiatzen gara haiekin parte-hartze bideak eraikitzen,

araudia lantzen eta tutoretza saioak antolatzen, garapen pertsonala lantzeko: enpatia, harremanak errespetutik planteatu, komunikazio abilezia eraginkorrak bideratu... Espero dugu hor egiten ari garen guztia luzera baliagarria izatea. Lortzen badugu eskola komunitatean denok parte sentitzea, harremanak aldatzen joango dira. Baina eskolan ez gara agente bakarrik lanketa horretan. Erantzukizun hori ezin dugu guk bakarrik hartu, ez da erreala.

Alda daiteke egoera?

Gauza asko egin daitezke. Bizitzan ikasteko gaude denok. Beti dago hobetzeko aukera. Aukera horiek aprobetxatu egin behar dira eta beti aurrera! Eta aldatu daiteke.

"Asko disfrutatzen da, pasada bat da"

IÑAKI RECIO IRUSTA FUTBOLARIA

Pozik, oso pozik dago Iñaki Recio Irusta futbolaria; 21 urterekin, 2. Mailara igotzea lortu du Sanserekin; bete du ametsetako bat

Demasekoa egin du aurtan Sansek, bigarren mailara igotzea lortu baitu, LaLiga SmartBankera. Realak berak dioen moduan, "sekulako balentria historikoa" egin dute jokalariek gipuzkoarrek. Haien artean dago Iñaki Recio Irusta soraluzetarra.

Nahikoa ospatu duzue edo oraindik horretan segitzen duzue? Meridan bertan ospatu genuen, lagunekin eta hara hurbildu ziren guztiekin. Oraindik egingo dugu beste bazkariren bat-edo, urtea agurtzeko, baina bestela, ondo ospatu dugu, bai. **Orain dela 60 urte igo zen Sanse azkeneko aldiz bigarren mailara; zelan sentitzen zara hori lortu duzuela jakitean?**

Hasieran ezin sinistuta. Ez genuen espero mailaz igotzea. Sansek azken urteotan urte onak egin ditu eta bagenekien ondo ibiliko ginela, baina ez genuen espero halako maila ematea. Baina playoffetan partidak irabazten joan ginen eta poliki-poliki gero eta gertuago ikusten genuen.

Azkenean sinistu egin genuen eta begira, azkenean lortu dugu. Pasada bat izan da. **Zuretzat zer suposatzen du honek?** Niretzat pasada bat. Aurreko urteetan ikusten nituen playoffak-eta etxetik; telebistatik ikusten nuen jendeak zelan disfrutatzen zuen eta esaten nuen: *gustatuko litzaidake halako egun bat, halako esperientzia bat bizi izatea*. Azkenean lortu dugu. **Pentsatzen zenuen modukoa izan da?**

Bai. Asko disfrutatzen da. Pasada bat da.

Orain oporretan zaude?

Ostiralean (gaur) dugu azken entrenamendua eta uztailera arte oporrak.

Baduzu egutegi berria?

Ez dakigu zein egunetan, baina normalean uztailaren 10erako hasten gara entrenatzen.

Egin duzue berba etorkizunari buruz?

Ez. Oraindik berba egin beharko da. Oraindik ez dakigu ezer.



Iñaki Recio Irusta zubian.

Eskatzea libre da; zuri zer gustatuko litzaiduke?

Sanserekin jarraitzea gustatuko litzaidake, baina ez dago nire esku. Esaten didatena ikusi behar.

Bien bitartean, Magisteritzarekin segituko duzu?

Bai. Oraindik ez dut ikasturtea amaitu. Hor ez dut oporrik oraindik.

Zer esango zenieke elkarriketa irakurtzen ari diren futbolzale edo kirolezale gazte soraluzetarrei?

Futbola edo gustuko duten hori ilusioarekin egiten segi dezatela. Gauzak, askotan, oso urruti eta oso zail ikusten dituzu, baina azkenean konturatu gabe heltzen dira eta asko disfrutatzen da. Posible da lortzea.

"GAUZAK, ASKOTAN, OSO URRUTI ETA OSO ZAIL IKUSTEN DITUZU, BAINA AZKENEAN HELTZEN DIRA"

"Entzutean, polita geratu dela iruditu zait"

DOMENTX UZIN TXISTULARIA ETA MUSIKA IRAKASLEA

Askabeitti izenburua duen txisturako pieza sortu eta aurkeztu du Domentx Uzinek; bost urteotan konposatzen duen bosgarren pieza da


Arrasate Musikaleko txistulari bandak maiatzaren 8an estreinatu zuen Domentx Uzinek sortutako pieza berria, hango Kulturateko areto nagusian. Uzinek sortutako *Atxolin* pieza ere talde berarekin estreinatu zuten orain bost urte, Aramaioko Gantzaga auzoan.

Zergatik Arrasaten?

Han txistu ikasle naizelako eta zerbait konposatzen badut, gustatzen zait han erakustea, nire maisuari eramatea. Juan Karlos Larreategi dut maisu, maila altuenetan dabil hura, Ansorenaren ikaslea izan da...

Zelan asmatzen da pieza bat?

Gogoia izan behar da. Adibidez, kalejira bat egiteko gogoia nuen. *Atxolin* sortu nuen. Oraingo honetan, zortziko baten txanda izan da. Piezen izenak, berriz, bertakoak etortzen zaizkit burura, kanpotarrek ezagutzen ez dituzten bertako leku politenak. Gogoratzeko hor daudela eta ezagutzera emateko. Bi pieza horien harira, adibidez, arrasatearrek galdetu zidaten ea non dauden leku



Domentx txistua jotzen.

horiek. Bestalde, Askabeitti piezari dagokionez, berezitasuna du, batik batik, bigarren partean. Besteak beste, silboteak protagonismo berezia dauka pieza osoan, baina bigarren partean ia-ia bakarlari moduan azaltzen da. Nik Arrasaten silbotea jotzen dut eta harreman berezia daukat instrumentu horrekin. Txistu taldeetan ez da oso kontuan hartzen silbotea.

Behin gogoia sentituta, zelan sortzen da pieza bat?

Nik inpulsoka funtzionatzen dut. Denboratxoa daukadanean egiten joaten naiz, lasai. Ez dut presarekin hartzen. Tarte luzea kentzen dit, 4-6 hilabete.

Batzuetan, presa apur bat izatea tokatu daiteke. Adibidez, *Ezozia* izeneko trilogia (fandangoa-arinarin eta biribilketa) estreinatzeko biribilketa egiteko daukat oraindik. 2-3 urte daramatzat eta ezin izan dut oraindik estreinatu.

Askabeittiri buruz zelako iritziak jaso dituzu?

Onak. Estreinaldirako ez nuen ilusio larregi, baina gero, grabatuta entzun nuenean, pentsatu nuen polita geratu zela eta familiari eta lagunei erakusteko gogoia sentitu nuen. Jendeari gustatu egin zaio, nire maisuari ere bai. Bai musika eta baita izena bera ere oso gertuko sentitzen ditugula uste dut.

Behin pieza bat sortuta, zabalpena ematen zaio hari?

Ni ez naiz handizalea. Ez dut SGAEN erregistratzeko gogorik eta ezta ere asko zabalatzeko. Nire txistu mundua bailara da. Hor eta plazentziatarren artean ezaguna egiten bada, nahikoa da. Egia esan, ez da pieza erraza. Nire gustura egin dut, oraingoan.

Plazentziatarrek ere zurea da...

Bai. Eskaera izan zen. Jauzi-dantza asko entzun, estiloa kontuan hartu eta pausoak non sartu komeni den kontuan hartuta konposatu nuen, herriko jauzi-dantza proiekturako. Ahalik eta jende gehienak dantzatzeko pieza erraza sortu nuen.

"ASKABEITTI PIEZAREN BIGARRIN ZATIAN SILBOTEIA IA BAKARLARI MODUAN AZALTZEN DA"

Kulturaldia heldu da

Datozen hilabeteetan zehar, kultur eskaintza oparoa izango da herrian. Udalak antolatutako ekimenekin batera, herriko gizarte eragileek antolatutako beste hainbat ekimen ere egingo dira.

Iaz bezala, aurten ere, Udalak erabaki du jaietarako gordeta zuen aurrekontuaren erdia ekainean eta uztailean zehar kultur egitarau alternatibo bat eskaintzera bideratzea. Hori dela eta, ekainean hasi eta uztailearen erdialdera bitartean ohikoa baino kultur ekimen gehiago izango dira herrian. Udalak antolatutako


emanaldietarako sarrerak Iratxo goxodendan eskuratu ahalko dira emanaldia baino hamabost egun lehenago.

Jaiak zalantzan

Udalak adierazi duenez "oraindik ez dago argi jaietan zer egin ahalko den". Ekainaren 8an (18:00), gaia lantzeko bilera irekia egingo da Tolarekuan.

ESKULTURA

'Baso isila' erakusketa



Julio Mendikuteren 'Baso isila' erakusketa ikusgai dago Gabolatseko Oreka Art galerian. Egurrezko 11 eskultura dira Shou-Sugi-Ban teknika japonesarakin landuak eta 6 kimigrama irudi, pintura eta argazkilaritzako prozedurak uztartuz sortuak. *Maiatzaren 28an hasi eta ekainaren 27ra arte, 19:00-20:00 bitartean, Oreka Art galerian. 635706690-943752139.*

ANTZERKIA

Madre Coraje y sus hijos



Bertolt Brechek idatzitako antzezlan da. XVII. Mendean Europan guztia suntsitu zuen Hogeita Hamar Urteko Gerran dago girotua eta seme-alaba eta salgaiekin batetik bestera dabilen emakumearen istorioa kontatzen du. Piedad Larrañaga Gasteizen bizi den plazentziatarrek interpretatzen du protagonista nagusiaren papera. *Maiatzak 29 zapatua, 19:30ean, Antzokian.*

ANTZERKIA

Ikimilikiliklik



Marie de Jongh konpainiaren eskutik dator Jokin Oregik zuzendutako obra. Feten 2020 espazio eszeniko onenaren saria jasota. Sorginei sekulako beldurra zien baina, denborarekin, "sorgin" bihurtu den neskato/emakume baten istorioa da. "Antzerki heldua haurrentzat eta haur antzerkia helduentzat". *Ekainak 13 domeka, 18:00etan, kiroldegiko frontoian.*

ANTZERKIA

Esnatu naiz kabareta



Antzerkia, dantza eta musika nahasten dituen "showa" da. Identitatea, giza-harremanak eta sexualitatea ditu hizpide, baina batez ere, gure nortasunarekin bat egin eta aske bizitzeko gonbitea egiten digu. "Elur baserritar euskadunak Londresko The Pink Flamingo klubean lan egiten amaituko du". *Ekainak 6 domeka, 19:30ean, Antzokian.*

MUSIKA**Azken Sustraiak**

Talde besaindarrak ohikoan jorratzen duten punk rock eta punk oi! doinu elektrikoak alde batera utzi eta "set akustikoa" prestatu dute egoera ezegonkor honetan aurrera egin ahal izateko. Pasa den urtean abiatu zituzten emanaldi akustikoak, eta horren barruan kokatzen da Soraluzekoa. (Iturria: Naiz.eus)
Ekainak 5 zapatua, 19:30ean, Antzokian.

MUSIKA**Neomak**

Gaztetxotan trikiti txapelketetan plazara salto egin eta gerora, Kepa Junkerarekin Sorginak taldean ibilitako musikariak dira. Ahotsak, trikitiba eta panderoak uztartuz, Neomak hitzak dioen eran, ilargi berriak aurkeztera datoz Arrasateko, Debako, Zarauzko, Zizurkilgo eta Asteasuko zazpi emakume.
Ekainak 19 zapatua, 19:30ean, Antzokian.

MUSIKA**Sotano 21**

Sotano 21 Elgoibarko taldea da. 2019an elkartzen hasi eta artista ezagunen bertsioak jotzen hasi zen: Juanito Makande, Fito y Fitopaldis... Gaur egun, runba estilo berbera mantentzen du blues ikutu eta guzti. Soraluzen, bertsioez gain, Asier Benito gitarristaren *Melobrazo* laneko doinuak ere joko dituzte.
Ekainak 25 barixakua, 19:00etan, Antzokian.

BERTSOA**Kontzertu bat bertsoan**

Eli eta Manex Pagolak bertso musikatuena saioa eskainiko dute Gaztelupeko terrazan. Domeka Ertzekoak zikloaren lehen emanaldia izango da, hernaniar bertsolariek eskainiko dutena. Ostean etorriko dira Konpost eta Assata musika taldeen kontzertuak, hamabosteroko maiztasunarekin.
Maiatzak 30 zapatua, 18:30ean, Gaztelupeko terrazan.

DOKUMENTALA**Suharra**

Euskal Herriko ganadu suharren historia kontatzen duen dokumentala ekoizti zuten iaz Ikusmin eta Euskal Zezenzale Elkarteak. "Ganadu suharren inguruko gure arbasoen ondare historiko-kulturala gorde eta ondorengoei eskaintzea" du helburu ikusentzunezkoak. Iraupena: 65 minutu.
Ekainak 9 eguaztena, 18:30ean, Antzokian.

KANTUA**Ganbara+Ezoziko Ama Abesbatza**

Hilabete askotan aurrez aurreko emanaldirik eskaini barik egon eta gero, Oñatiko Ganbara Abesbatza entzutetsuak kontzertua eskainiko du antzokian Udalak gonbidatuta. Emanaldian Soraluzeko Ezoziko Ama abesbatzak ere parte hartuko, oñatiarrekin batera bi-hiru kantu interpretatuta.
Ekainak 26 zapatua, 19:30ean, Antzokian.

"Palestinako estatua aitortu beharko litzateke nazioartean"

MOHAMED KADDOURA ETA ZAHIE ABDULRAZEK SORALUZEN BIZI DIREN PALESTINARRAK

TESTUA ETA ARGAZKIAK: UBANE MADERA

Mohamed Kaddoura (Arabiar Emirerriak, 1985), Zahie Abdulrazek (Libarno, 1989) eta haien alaba Maya eta Fares palestinarrek dira. Baina ez dute hango pasaporterik. Herrigabeak dira, ez diete palestinar nazionalitatea onartzen. Ia bi urte daramatzate Soraluze bizitzen.

Nondik etorri zineten?

Libanotik. 1948an, nire aitona-amonak Palestinatik bota zituzten, Akhatik, Haifatik gertu. Libanora joan ziren. Nire gurasoak han bizi dira, baina Libanon ez dugu ez bertako nazionalitaterik, ezta eskubiderik ere. Palestinarrak gara. Bidaia dokumentu bat dugu, Libanon bizi garen palestinarrek garelako dioena. Baina ez dugu Palestinako pasaporterik. Libanon 170.000 palestinar kanpalekuetan bizi gara. Gainera, arrazakeria handia dago han; kultura desberdin ugari dago eta arrazakeria handia. Nire aita Arabiar Emirerrietara joan zen lan bila eta horregatik jaio



Mohamed Kaddoura, Zahie Abdulrazek, Maya eta Fares.

nintzen ni han. Zahie, berriz, Libanon jaio zen. Orain, 30 urterekin, handik ere joan gara, han ere ez dugulako ezer, lan egiteko eskubidea bakarrik. Lana baduzu erresidentzia eskubidea ematen dizute (Emirerrietan ez dago kanpalekurik). Baina lana bukatzean, dena galtzen duzu. Zahien familia ere Libanoko kanpalekuen eta Arabiar Emirerrien artean sakabanatuta dago. Biok ikasi

dugu Enpresen Administrazioa unibertsitatean.

Zergatik etorri zarete Euskadira?

Gure seme-alabek gurea baino etorkizun hobea izan dezaten. Libanon ez dute ezer. Dirurik ez baduzu ezin duzu ikasi.

Palestinan, berriz, baduzue lagunik edo seniderik?

Senideak. Nire (Zahie) osaba-izebak Haifan bizi dira, okupatutako lurraldean. Han egiten dute lan.

Zein da haien egoera?



Hainbat herritar Palestinari elkatasuna adierazteko elkarretaratzean.

"JUDAISMOA ERLIJIOA DA, GUK EZ DUGU ARAZORIK ERLIJIOAREKIN, SIONISMOAREKIN BAI"

Txarra. Ezin dute esan palestinarrak direla, ezta palestinarrak babesten dituztenik ere, atxilotu egiten dituzte, eraso egiten diete. 35.000 palestinatar-arabiar bizi dira han inguruan.

Zuek joan zarete Palestinara?
Ezin izan gara sekula joan, ez dugulako hango nazionalitatearik. 1948an Palestinatik irten zirenek ez dute Palestinako pasaporterik.

Zenbat palestinatar zaudete munduan sakabanatuta?
2020an, 6,9 milioi palestinatar bizi ginen Palestinatik kanpo: Libanon, Sirian, Jordanian, Egipton, Iraken, Europan, Ameriketako Estatu Batuetan, Hego Amerikan eta Canadian. Orain mundu osoan gaude.

Beraz, lehen israeldarrak zeuden moduan zaudete orain zuek, munduan sakabanatuta.
Horrela da. Nire amama, aitona, osaba-izebak... denak joan ziren Palestinatik. Nire aitonaren semea hil egin zuten, tiroz. Horregatik joan ziren Libanora.

Palestinian, zenbat palestinatar bizi dira?
6,8 milioi.

Orain su-etena dago Palestinan. Zelan ikusten duzue egoera?
Egoera ez da batere egonkorra. Atzo bertan (domekan) hainbat palestinatar atxilotu zituzten. Israeldarrak egunero ahalegintzen dira zona berriak okupatzen eta kontrolatzen eta palestinarrak atxilotzen. Orain Sheikj Jarrahko bizilagunak bota eta hura kontrolatu nahi dute, betiko moduan. Baina oraingoan, palestinarrak ez dute nahi, herri hori Al Aqsako meskitatik oso gertu dagoelako. Bonbardaketan aurretik ere egin zituzten erasoak Al Aqsan.

Soraluzetik zer egin daiteke?
Gazan eta Palestinan egiten ari diren bonbardaketak eta emakumeen eta umeen hilketak salatu, manifestazio bitartez, jendeak jakin dezan zer gertatzen ari den Palestinan.

Hango gatazkari dagokionez, berriz, zer egin beharko litzateke?
Palestinari askatasuna eman eta kanpoan bizi diren palestinarrak etxera bueltatzeko aukera izan beharko lukete. Nazioarteko eskubideak izan beharko litzukete.

Israeldarrak ez dira handik joango.

Ez. Gainera, orain ahalegintzen ari dira Al Aqsa meskitatik gertu bizi diren palestinatar gehiago botatzen euren etxeetatik.

Netanyahu ez balego Israel gobernatzeko, errazagoa litzateke egoera?
Netanyahu gogorragoa da, bai. Baina, berdin da. Beti da berdin. Ameriketako presidentea aldatu arren, beti dago Israelen alde.

Palestina libre balitz, posible ikusiko zenukete juduekin elkar-bizitzea?
Judaismoa erlijioa da. Guk ez dugu arazorik erlijioarekin, bai, ordea, Israelekin, sionismoarekin.

Besterik nahi duzue gaineratu...
Gure ustez, nazioarteak Palestinako Estatua aitortu beharko luke eta palestinarrak Palestinara bueltatzeko lagundu. Bestalde, nahiko nuke esan hemen, Soraluzen, oso gustura gaudela, hemen giza eskubideak errespetatu egiten dira, herri honekiko pertententzia sentimendua dugu eta badakigu gure seme-alabek gurea baino bizimodu hobea izango dutela, hemen dauden pertsona onei esker.

Pil-pileanek 25 urte: maiatzekoak


TESTUA UBANE MADERA ZANGITU
ARGAZKIAK: PIL-PILEAN

Hainbat obra edo ekimen esanguratsu izan dira azken 25 urteotako apiriletan. Olatik Estaziorako bidea inauguratu zen, igogailu berriak egiten hasi ziren edo Soraluçeren zein Soraluçeko Ametsa Ikastolaren 50. urteurrenak, esaterako.

1998-2001

Txirringularitza saria

1998an egin zen Soraluçeko Kirol Bazkunak antolatutako lehen txirringularitza saria. Antolatzailletako bat Juan Mari Oregi izan zen. Lasterketa aprobetxatuz, hainbat urtetan afizionatu mailan ibili zen Bittor Goenaga txirringularia omendu zuten. Bestalde,



Adrian Diez.

1999ko maiatzean, Adrian Diez soraluçetarra omendu zuten. Diez Espainiako txapelduna izan zen 1962an. Bere txapeldun banda Ezoziko Ama Birjinari eskaini zion.

Oso bestelako kontuetan, 2000ko maiatzean erabaki zen Ezoziko jaiak ekainean egitea, abuztuan beharreen. Aldaketaren arrazoia abuztuan oso jende gutxi bertaraten zela izan zen.

2001eko maiatzean, berriz, Mendiola industrialdera sartzeko azelerazio bidea inauguratu zuten. 113 milioi pezetako kostua izan zuen. Urte eta hilabete berean bukatu zuten Sacia ondoko tunela botatzen. 1925eko tunela zen.

2002-2005

Etxeak, Itxaropena eta ibaia

Herrian eraikitzen ari ziren etxebizitzak hizpide izan ziren 2002ko maiatzean. Amutxastegi lantegiaren eremuan 40 etxe eraikitzen zebiltzan. Atxurin, egoitza parekoak ere ari ziren eraikitzen. 2002an, Soraluçen 4.176 bizilagun zeuden.

2004ko maiatzean erosi zuen Udalak Itxaropena elkarte. Ministerioak egoitza subastara ateratzeko asmoaren berri izan ostean hartu zuen erabakia, beste norbaiti saltzeko arriskua ere bazegotelako. 140.636 euro ordaindu zituen Udalak.

2004an, Deba ibaia saneatzeko plana hasi zen. Gipuzkoako

ibairik zikinena zen Eusko Jaurlaritzaren eta Foru Aldundiaren ikerketa baten arabera.

2005eko maiatzaren 15ean, goizaldeko 4ak aldera, lehergailu batek eztanda egin zuen GOL enpresan. Bulego sarreran eta biltegian kalteak eragin zituen, bai eta inguruko etxe partikularretako zenbait lehotan ere. Ordu berean Bergarako, Elgoibarko eta Beasaingo beste hiru enpresatan ere jarri zituzten lehergailuak. Atentatu horiek, Herrizaingo sailaren arabera, ETaren iraultza zergarekin izan zuten zerikusia.

Bestalde, 2005ean hil zen Ramiro Larrañaga Fernandez de Arenzana (Soraluçe 1924 - Donostia 2005). Armagin familia batean jaioa, Maisu grabatzailea izan zen 1945etik eta baita



Ramiro Larrañaga.

idazlea ere. Autodidakta gisa, zizela erabiltzeko manera berriak garatu zituen, bai grabatuetan, bai urrezko ezkutu-zigiluetan, baita errotuluetan ere. Idazle moduan, berriz, Euskal Herriko armagintzaren inguruko bere ikerketa lanagatik nabarmendu da, baina gai anitzeko liburu asko idatzi zituen. Musikaria ere izan zen.

2006-2012

Artxiiboak, langabezia, Sorako neskek eta Allegro

2006an berreskuratu zuen Udalak XVI.mendetik XIX.era bitarteko eskribautzen edo notarioen dokumentazioa. 40ko hamarkadaz geroztik Bergarako Udal artxiiboetan zegoen. 1.499 espediente berreskuratu zituen, 1539 eta 1849 urteen bitartean eskribauek idatzitakoak.

Bestalde, 2006an Erregetxeko lurrazpiko aparkalekuak egiteko proiektua bertan behera laga zuen Moyua enpresak. Proiektuan, 135 garage plaza egitea aurreikusten zen, 50 urterako kontzesio bidez esleitzeko. Oposizioko alderdiek ez zuten begi onez ikusi proiektua eta herritarren artean ere ugari izan ziren aurka batu ziren sinadurak.

2008ko maiatzean, ikusi zuten urtebetean langabeziak %98 egin zuela gora. Krisiak enpresetan ere eragin zuen. 2008ko lehen hiruhilekoan, 234



Patxo Telleria eta Jokin Oregi Max sariarekin.

soraluzetarren kontratuak eten egin zituzten aldi baterako.

2008ko maiatzean, baita ere, Sorako nesken taldea finalera iritsi zen. Urte hartan sortu zuten taldea. 29 partidatetik 24 irabazi egin zituzten.

2010ean, 50 urte bete zituen Allegro elkarteak. Musikari lotuta beti, besteak beste, Allegro elkarte izan zen Soraluzeko danborrada antolatzen aitzindaria, 1944an. Sorrera, musikak berak eragina izan zen.

2012-2021

Max saria, lasterketak, Gure Esku Dago eta beste

2012ko maiatzean jaso zuen Jokin Oregik Max saria. Euskarazko antzezlan onenaren egilearen saria jaso zuten berak eta Patxo Telleriak, LKM, Larria, kutsakorra, mendebaldekoa lanarengatik.

Bestalde, 2012ko maiatzean antolatu zen Iñaki Ruizen omenezko lehen mendi lasterketa, San Andresko jaien egitarauaren barruan.

2013an, Argizaiola saria irabazi zuen Carlos de Cosek. Euskal Herriko Argazkilaritzako sarien saria. Euskal Herriko beste zortzi txapelketatan sariren bat lortu duten argazkilariek parte hartzen dute lehiaketa horretan.



Soraluze Mugituz ekimenaren lasterketa bat.

2016ko maiatzaren 5ean, udalbatzarrak aho batez onartu zuen Sologoengo zentrala Udalak eskuratzea. Jabetza eta kudeaketa, eskuratu zituen Udalak.

2017eko maiatzaren 19an inauguratu zuten Elesa-Ganter Iberica lantegiaren pabiloi berria, Mendiola industrialdean.

2017an Gure Esku Dagok erreferenduma antolatu zuen maiatzaren 7an. Herritarren %27,29ak bozkatu zuen (eskualdean %18ak). Guztira, 908 boto izan ziren. Euskal Herri independente bateko herritar izan nahi duten galdetuta. 843 boto baiezkoak izan ziren, ezezkoak 43, zuriak 19 eta baliogabeak 3.

2018an egin zen I. Alejandro Rodriguez Memoriale Herri Krosa. Parte-hartzea handia izan zen.

2019an agurtu zen danborrada. Boluntario berri faltan, danborrada antolatzen ibili zen batzordeko kideek adierazi zuten antolatzaile nahikorik ez zegoela danborrada antolatzen segitzeko.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK



Gorka eta Idara
Zorionak!
Maiatzaren 2an eta maiatzaren 16an.
Segi beti irribarre hoiekin, asko maite zaituztegu.



Bidane Lazpita Ormaetxea
Maiatzaren 14an 2 urte. Zorionak etxeko guztien partez!



Beñat Larrañaga Gallastegi
Maiatzaren 23an 2 urte. Zorionak! Segi holako mutil alaia izaten! Patxo haundi bat etxekoen partez, batez be Markelen partez.



June Sodupe Agirre
Maiatzaren 23an 2 urte. Zorionak June!!!



Kattalin Sodupe
Ekainaren 7an, 7 urte. Zorionak!!!
Amama Angelican partez.



Santos eta Idurre
Maiatzaren 4 eta 6an 70 eta 6 urte. Zorionak bikote!!
Gure eguzki eta ilargia zarie. Patxito haundi bat.



Txeren eta Aiora
Maitatuak, maitasunean, maitasunez.
2010-05-01.
Zorionak!

Urte askotarako!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak; bi bide dituzu:

Internet

Plaentxia.eus-en erabiltzailea sortu eta <http://plaentxia.eus/zorionagurrak> helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta hilabeteko azken ostiralean aldizkarian.

Posta elektronikoa

Mezua bidali zorionagurrak@pilpilean.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

JAIOBERRIAK



Julen Azula Motrel
Maiatzaren 16an jaio zen.



Luar Akarregi Quintanilla
Maiatzaren 21ean jaio zen.

HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

Hildakoak

Carlos Tornos Zubizarreta
Ana Maria Argarate Murua

Jaiotakoak

Julen Azula Motrel
Luar Akarregi Quintanilla

Jatearen plazarrera, bertatik bertara



Batzoki

eguneko menua
saldotegiarekin
karta eta txakurak

ogitariek eta
hamburgeriak
entzuga bereziak

Basila eta
lupin erieko
beharak.

Erreserbak 943 75 20 55

ELIZPE
HORTZ KLINIKA

Zure genako hortz klinika, punta puntako teknologekin lan egiten dugu. Cal-Cam sistema bertakoa erabiltzen dugu.



Elizburu, 3 behea
SORBALLIZE
Tel.: 943 75 25 67
e-mail: elizpe.kl@gmail.com

Ordutegia:
Asteheneretik ostiralera
9:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00

Hortz klinika

Errabai 1
Tel.: 943 75 16 13

Javier Alonso
Mediku Estomatologoa
K.Z. 48.000.591

Katia Gustinio
Odontologoa
K.Z. 48.061.541

27 urteko esperientzia odontologiko, protesiak, odontopediatria, ortodontzia, implantak, estetika...
Zerbitzu radiologiko orokorra (D0):
ekianerria, ortu eta tele.



MGS
Seguros

Veronica Gallarraga
Gertukoa eta segurua



Asteheneretik ostiralera:
10:00 - 13:30 eta 17:00 - 19:30

Santa Ana 13
Tel.: 665 744 055

Kontulan
abokatuak

Errenta aitargenak · Administrazio lanak
Traffekio buruzkoak · Lan-arloko aholkularitza
Enpresen kontuzio/leoholuzioak · Konzultatza

Santa Ana 13 - 1. esk. 20590 Sorluze
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 61 82

Sorluzeako
Kooperatiba Elkarteak
1910tik ezabak

Arrandegia, janaria,
errapak, etxeko tresnak,
etxera eramateko zerbitzua

Kalebarren 4
Tel.: 943 75 13 45

Asteheneretik ostiralera:
09:30 - 12:30 eta 17:00 - 19:45
Larunbatik: 09:30 - 13:00



MENDIZABAL
okindegia

Ogia · Prentsa · Gosariak



Asteheneretik ostiralera:
08:00 - 13:00
17:00 - 20:00

Larunbatak eta igandeak
08:30 - 13:15

Kalebarren 10
Tel.: 943 75 13 99

IZAGUIRRE
Igeltzeritza



Erakin berriak · Kalitatezko emaitza
Erreforma · Era gutxietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia · 610 638 913 · 649 867 289

Belarrak
lana eta belarrendidua



Elkagai ekologikoak
Etxerako zerbitzua

Santa Ana 22
943 75 30 11

Txoko

Eguneko menua,
plater konbinatuak,
hamburgeriak,
ogitariekak,
radiak,
pizzaak,
gosaia...

Enkarguak egiten dira
Tel. 943 75 17 89



MABEL
INEFPAINDEGIA

- Banyotako keratina tratamendua
- Depilazioa
- Re-sustrainik gabeko permanentea
- Makilajea
- Manikura
- Entzaurukorra
- Solariuma

Errabai 1
Tel.: 943 75 14 89



Carpinteria
MANU
Aroztegia

Atak
Bostak
Portak
Sukaldeak
Tafelak

Manuel Cifuentes
Estazioa 8. barrera - Mug. 636 05 81 25



HNOS. BENITO
ANXIK
MUEBLES-ALTZARIAK

Sukaldeak, logelak, egongelak,
neurriera egindako altzariak...

Santa Ana, 26 - Tel.: 943 75 20 47



KLB6

Kalebarren 6
943 57 74 26

Muler-eta mendien modu-gaitza

BSB *Papa Juan* | **SOLID**
VERO MODA | **ESCHERICH**

AB *new balance*



FOGASLER
ITURGINTZA

943 75 16 46 (Sorluze) · 943 71 82 49 (Oñati)
fogasleriturgintza@gmail.com



Euskalzaletasunaren alde:






2021
2022

MUSIKA ESKOLA MAIATZAK 22

MATRIKULAZIOA EKAINAK 6

KLARINETEA SAXOFOIA PIANOA GITARRA SOINUA TRIKITIXA PANDEROA ZEHARKAKO TXIRULA
BIOLINA TRONPETA TRONBOIA ABESBATZA PERKUSIOA BAXU ELEKTRIKOA MUSIKA TAILERRA
TALDE INSTRUMENTALA GITARRA ELEKTRIKOA FOLK TALDEA GANBARA MUSIKA TXISTUA
MUSIKA HIZKUNTZA BANDA GAZTE ETA HELDUENTZAKO MUSIKA HIZKUNTZA BIOLONTXELOA

Aurrematrikula ONLINE egiteko: labur.eus/aurrematrikula1



KONTAKTUA:

✉ soraluzemusika@gmail.com ☎ 943 75 15 44

SORALUZE
musika eskola

HAURRENTZAKO MARGO LEHIAKETA

Maiatzak 30, igandea, goizeko 11etatik 13etara, Plaza Berrian

PARTE HARTZEA

Parte hartzaileek beren lanak burutzeko beharrezkoak dituzten tresnak (Margoak, arkatza...) antolakuntzak jarriko ditu. Hala ere, etxetik ekarri nahi dituenak izango du horretarako aukerarik.

SARIAK

- Maila bakoitzeko 3 lanik onenak sarituko dira
- Parte hartzaile guztiek oparia jasoko dute
- Sariak egunean bertan emango dira, arratsaldeko 5:30ean

Antolatzaileak:

Udaleko Kultura Batzordea
Krabellen Pintura Eskola

MAILAK

1. Haur hezkuntzako ikasleak
2. Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. maila
3. Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. maila
4. Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. maila
5. Bigarren Hezkuntza

